

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2016ko ekainaren 2ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Tamaina handikoak jasotzeko lehiaketa:** Koopera Servicios Ambientales S. Coop. enpresari esleitu zitzaion. Zerbitzu berria bezperan, ekainaren 1, hasi zen. Ortuellako Berziklatu tratamendutegia bisitatzea adostu da, ekainaren 9an, osteguna, 12:00etan. Komunikazio-plana gainbegiratu da.
- **Erabilitako etxeko landare-olioa jasotzeko lehiaketa:** *Neurrigabeko eskaintza posibleari eta erabaki-proposamenari buruzko txostena* aztertu ondoren, honakoa erabaki da: “Eko Gasteiz, S.L. enpresaren eskaintza onartzea eta baloratzea”. *Parte-hartzaileei eta aurkeztutako eskaintzei buruzko txostena* aztertu da. Erabaki hau onartu da: “esleipena egin aurretik, lehenengo sailkatua den Eko Gasteiz S.L. enpresari indarreko dokumentazioa aurkezteko eskatzea”.
- **BFA laguntza organikoa:** Eskatutako laguntza eman dela jakinarazi da: 60.000 euro komunikazio-planerako eta 40.000 euro hornikuntzarako.
- **Informazioak:** Ihobe/Udalsarea 21 esker oneko gutuna.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** ekainaren 30an, osteguna, 8:30etatik 10:30etara.